MIRIORAMA

ZIZALETA

Planeta, animaliak eta pertsonak zaintzeko istorioen unibertso amaigabea

InteRed-eko Zizaleta ipuinean inspiratua eta PURA QUITERIA-k ilustratua

GUSAPOSA

Un universo infinito de historias
para cuidar del planeta, los animales
y las personas

Inspirado en el cuento Gusaposa de InteRed e ilustrado por PURA QUITERIA

Koordinazioa: InteRed
Jokoaren diseinua: *PURA QUITERIA*
Ilustrazioa eta diseinu grafikoa: *PURA QUITERIA*
Zizaleta ipuina: Pandora Mirabilia (Violeta Buckley, Irene García eta Marta Monasterio)
Colorado y colorín cuentos para niñas y niños que cuidan del planeta, de ti y de mí (2022)
Ipuinaren itzulpena: ULER ITZULPENAK
Jarraibideen itzulpena: BAKUN, S.L.





Lan hau kopiatu, banatu eta publikoki komunika daiteke, baldin eta InterRed-i aurretik jakinarazten bazaio, egilea nor den aitortzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ezin da obra horretatik eratorritako obra bat aldatu, eraldatu edo sortu.

Material hau lizentzia honen mende dago: Creative Commons Atribución-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional (CC BY-NC-SA 4.0)/ Creative Commons Attribution-NonCommercial-NoDerivatives 4.0 International. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu: https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0 /

Miriorama hau *Colorado y colorín bildumako izen bereko ipuinean inspiratuta dago. Planeta, zu eta ni zaintzen dituzten haurrentzako ipuinak*. *Hezkuntza eraldatzailearen aldeko eta Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzearekin konprometitutako herritartasun globalerako* hitzarmenaren esparruan egin da (18-CO1001208 kodea). AECID. Pandora Mirabilia eta InteRedek egina.

Joko hau *PURA QUITERIA* eta InteRed erakundeek sortu eta egokitu dute *Ekotopiak: Pertsonen eta Planetaren Zaintzaren Aldeko Hezkidetza - Komunitate aktiboak eraikitzen* (PRO-2025K3/0011), eLankidetza, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren babesarekin.





Se permite libremente copiar, distribuir y comunicar públicamente esta obra siempre y cuando se informe previamente a InteRed, se reconozca la autoría y no se use para fines comerciales. No se puede alterar, transformar o generar una obra derivada a partir de esta obra.

Este material está bajo una licencia Creative Commons Atribución-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional (CC BY-NC-SA 4.0)/ Creative Commons Attribution-NonCommercial-NoDerivatives 4.0 International. Para ver una copia de esta licencia, visita: https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/

Este miniorama se inspira en el cuento del mismo nombre de la colección *Colorado y colorín. Cuentos para niñas y niños que cuidan del planeta, de ti y de mí.* En el marco del convenio *Por una educación transformadora y para la ciudadanía global comprometida con el cumplimiento de los ODS* (18-CO1001208). AECID. Realizado por Pandora Mirabilia e InteRed.

La creación y adaptación de este juego es de PURA QUITERIA e InteRed gracias al proyecto *Ecotopías para nuestro futuro: construyendo comunidades co-educativas activas por los cuidados de las Personas y del Planeta* financiado por la Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad en la convocatoria de 2025.

ZIZALETA

GUSAPOSA

Nola jolasten da

Miriorama bat duzu esku artean, edo, bestela esanda, istorioen unibertso amaigabe bat. Karta-joko ilustratu bat da, modu kolektiboan kontakizunak sortzeko balio duena.

Cómo jugar

Tienes entre tus manos un miriorama, o lo que es lo mismo, un universo infinito de historias. Se trata de un juego de cartas ilustradas con el que crear relatos de forma colectiva.

Objetivo

Crear historias para imaginar otros mundos posibles. A través del juego activáis la imaginación, creáis juntas, practicáis la comunicación asertiva, os divertís y os hacéis conscientes de que existen alternativas ecofeministas más justas y esperanzadoras a la realidad.



Elementos del juego

- 9 cartas ilustradas
- 1 bolsa para guardar el juego
- 1 libro con instrucciones y el cuento de Gusaposa
- 1 carta sin ilustrar que tenéis que preparar antes de jugar

Cómo hacer las cartas en blanco:

- Cortáis una cartulina de color claro tamaño folio (A4) por la mitad (A5).
- Ponéis nuestra carta vacía sobre la mesa y en cada lado una de las otras cartas ilustradas para marcar el fondo. En estos puntos tiene que empezar y acabar la línea del horizonte para que tengan continuidad.
- Cada vez que juguéis tenéis que crear una carta nueva. Si jugáis por grupos, crea una carta para cada grupo.
- Podéis guardar las cartas para tener una baraja cada vez más grande.



Duración del juego

El miriorama está pensado para jugar en una sesión de 45 minutos. Podéis acortarla o alargarla en función del tiempo que tengáis.

Cómo se juega: una historia colaborativa

1. A través de estas 10 cartas vais a crear vuestra propia historia. Lo primero es sacarlas de su bolsa y ponerlas boca arriba sobre una superficie donde todas las participantes las veáis, como una mesa o el suelo.

2. Entre todas seleccionáis una carta que dé inicio a vuestro relato y a partir de ahí vais ordenando las demás a medida que os vayáis inventando la historia.

3. En la carta sin ilustrar dibujáis una nueva escena. Puede ser un inicio que explique de dónde viene vuestra historia, puede ser un final sorprendente o cualquier escena intermedia para la narración.



Helburua

Beste mundu posible batzuk irudikatzeko istorioak sortzea. Jolasaren bidez, elkarrekin irudimena aktibatu, sormena landu eta asertzizko komunikazioa praktikatuko duzue. Ongi pasako duzue eta aldi berean errealitatearekiko bidezkoagoak eta itxaropentsuagoak diren aukera ekofeminista batzuk daudela ikasiko duzue.



Jokoaren elementuak

9 karta ilustratu
Joko gordetzeko poltsa 1
Liburu 1 jarraibideekin eta Zizaleta ipuinarekin
Ilustratu gabeko karta 1, jokatu aurretik prestatu beharko duzuena

Nola sortu karta zuriak:

- Mozlu folio tamainako (A4) kartoi mehe argi bat erditik (A5).
- Jarri karta zuria mahai gainean eta alde bakoitzean beste karta ilustratu bat, eremua markatzeko. Puntu horietan ortzi-mugaren lerroa hasi eta amaitu behar da, jarraipena izan dezaten.
- Jokatzen duzuen bakoitzean karta berri bat sortu behar duzue. Taldeka jokatzen baduzue, sortu karta bat talde bakoitzeko.
- Kartak gorde ditzakezue karta-sorta gero eta handiagoa izateko.



Jokoaren iraupena

Miriorama 45 minutuko saio batean jokatzeko pentsatuta dago. Laburtu edo luzatu dezakezue iraupena, daukazuen denborarен arabera.

Nola jolastem da: elkarrlanerako istorio bat

1. 10 karta horien bidez, zuen berezko istorioa sortuko duzue. Lehenik eta behin, poltsatik atera eta ahoz gora jarri behar dira parte-hartzaile guztiek ikusiko dituzuen gainazal batean, hala nola mahai batean edo lurrean.

2. Denen artean, zuen kontakizunari hasiera emango dion karta bat aukeratuko duzue, eta, horrik aurrera, bestеak ordenatzen joango zarete istorioa asmatu ahala.

3. Ilustratu gabeko kartan eszena berri bat marraztuko duzue. Izan daitekе zuen istorioa nondik datorren azaltzeko hasiera, amaiera harrigarri bat edo narraziorako tarteko edozein eszena.



4. Arbelean edo beste euskarri batean sortzen ari zareten kontakizuna idatziko duzue, xehetasunik ez ahazteko.

5. Istorioa eraiki duzuenean, kontatu denon artean eta ondoren hausnartu elkarrekin.

Hausnarketa irekitzeko galderen adibideak:

- Nola sentitu zarete? Zein izan da jokoaren gauzarik errazena eta zailena?
- Zer da zuentzat natura?
- Zer gertatzen da animaliekin sortu dugun istorioan?
- Zer egiten dute pertsonek gure istorioan? Nola tratatzen dituzte animaliak eta natura?
- Gizakiok nahi dugun moduan tratatu al ditzakegu natura eta animaliak?
- Nola zaintzen gaitu naturak? Bera gabe bizi gaitezke?

ESTRA!

Zizaleta ipuina izan zen joko hau sortzeko abiapuntua. Zuen istorioak sortu ondoren irakur dezakezuen gehigarri bat da, hausnartzen jarraitzeko.

Jokatzeko beste modu batzuk

Hona hemen jokatzeko beste modu batzuk, zure taldeari eta denbora erabilgarriari gehien egokitzen zaiona edo interesgarriena iruditzen zaizuena aukera dezazuen. Beste aldaera batzuk ere asma ditzakezue.

1. Pertsona bakoitzak karta bat hartuko du eta istorioari zati bat gehituko dio, aurrekoak berea sortzeko esan zuena kontuan hartuta.

2. Jarri kartak ahoz behera ilara eta zutabe desberdinetan. Banan-banan, pertsona bakoitzak karta bati buelta emango dio, eta istorioa eraikitzen jarraituko du, aurrekoak esandakoa kontuan hartuta.

3. Banatu 3 karta ilustratu eta ilustratu gabeko bat talde bakoitzari, mikrokontakizun bat sortzeko.

4. Aukeratu hasierako karta bat eta amaierako beste bat, eta koka itzazue haien artean lekua utziz. Kartaz karta parte-hartzaile guztien artean istorio bat sortzea da helburua.

4. Anotáis el relato que vais creando en la pizarra o en otro soporte para no olvidaros de los detalles.

5. Cuando la historia esté construida, la contáis entre todas para después reflexionar juntas.

Ejemplos de preguntas detonadoras de la reflexión:

- ¿Cómo os habéis sentido? ¿Qué ha sido lo más fácil y lo más difícil del juego?
- ¿Qué es para vosotras la naturaleza?
- ¿Qué pasa con los animales en la historia que habéis creado?
- ¿Qué hacen las personas en vuestra historia? ¿Cómo tratan a los animales y a la naturaleza?
- ¿Las personas podemos tratar a la naturaleza y los animales como nos dé la gana?
- ¿Cómo nos cuida la naturaleza? ¿Podríamos vivir sin ella?

¡EXTRA!

El cuento de Gusaposa fue el punto de partida para crear este juego. Es un extra que podéis leer después de crear vuestras historias para seguir reflexionando.

Otras formas de jugar

Aquí van distintas maneras de jugar para que escojáis la que más se ajusta a vuestro grupo y al tiempo disponible o la que os parezca más interesante. También podéis inventaros otras variantes.

1. Cada persona coge una carta y añade una parte a la historia, teniendo en cuenta lo que dijo la anterior para crear la suya.

2. Colocáis las cartas boca abajo en diferentes filas y columnas. Una por una, cada persona le da la vuelta a una carta y sigue la historia teniendo en cuenta lo que dijo la anterior.

3. Repartís 3 cartas ilustradas y 1 carta sin ilustrar a cada grupo para crear un microrrelato.

4. Escogéis una carta inicial y otra final y las colocáis dejando espacio entre ellas. Se trata de crear la historia carta por carta entre todas las participantes.

Jolastera!

Ekofeminismoei buruz gehiago ikasi nahi baduzue, hurrengo gida didaktikoa kontsulta dezakezue: *Etorkizuna ez dago salgai. Emakume defendatzaileak zutik.*



ESTRA, ESTRA!

Nola lagundu taldeari

- Jokatzen hasi aurretik, adostu kolektiboki parte hartzeko arau batzuk, honako hauek kontuan hartuta:
  - Ideia guztiek balio dute, nahiz eta oso zoroak iruditu edo besteek buruan dituztenetatik oso ezberdinak izan. Politena talde osoarenak batzea istorioa eraikitzeko da.
  - Errespetatu guztien ideiak. Garrantzitsua da mundu guztia ongi sentitzea jolasterakoan.
  - Zuen istorioa sortzeko, kartetan ikusten duzuenarekin jolas dezakezue, baina baita ikusten ez duzuenarekin ere. Zein izango zen hango usaina? Eta soinua? Ba al dago beste pertsonaiarik?...
  - Zaindu materiala hamaika istorio kontatu ahal izateko.
- Arreta handia jarri jolasean genero, etnia, klase eta abarren estereotipoak ez erreproduzitzeko. Barneratuta dauzkagu eta batzuetan ihes egiten digute.
- Parte-hartzaileek kolektibo batzuekiko begirada estereotipatu edo bortitzetara doazen istorioak sortzen badituzte, ez dadila izua zabaldu! Aztertu taldean sinesmen horiek nondik datozen, guztien artean desmuntatu ahal izateko.
- Parte-hartzean gatazkak sortzen badira, eman lekua eta eman arreta.
- Seguru egingo duzuela, baina saia zaitezte irudimenari mugarik ez jartzen.
- Bideratu azken hausnarketak itxaropenera, kolektibitatera, elkarrekiko errespetura, ekodependentziara, interdependentziara eta zaintzetara.



¡A jugar!

Si queréis aprender más sobre ecofeminismos podéis consultar la guía didáctica *El futuro no se vende. Mujeres defensoras en pie de Tierra.*

¡EXTRA, EXTRA!

Cómo acompañar al grupo

- Antes de empezar a jugar, podéis acordar colectivamente unas normas de participación que tengan en cuenta lo siguiente:
  - Todas las ideas son válidas, por muy locas que parezcan o por muy diferentes que sean a las que el resto tiene en la cabeza. Lo bonito es sumar las de todo el grupo para construir la historia.
  - Es importante respetar las ideas de todas. Que todo el mundo se sienta bien jugando.
  - Para crear vuestra historia, podéis jugar con lo que véis en las cartas, pero también con lo que no véis. ¿Qué olores habría? ¿Qué sonidos? ¿Hay otros personajes?...
  - No os olvidéis de cuidar el material para que se puedan contar millones de historias.
- Deberéis prestar mucha atención para no reproducir estereotipos de género, etnia, clase, etc. durante el juego. Los tenemos interiorizados y a veces se nos escapan.
- Si las participantes creáis historias que se van hacia miradas estereotipadas o violentas con algunos colectivos, ¡que no cunda el pánico! Podéis explorar en colectivo desde el cariño de dónde vienen esas creencias para poder desmontarlas entre todas.
- Si surgen conflictos en la participación, se busca un espacio para atenderlos.
- Seguro que ya lo hacéis, pero no condicionéis ni pongáis límites a la imaginación.
- Podéis orientar las reflexiones finales hacia la esperanza, la colectividad, el respeto mutuo, la ecodependencia, la interdependencia y los cuidados.

Gusaposa, el cuento*

¡Ojo! No leáis el cuento antes de jugar,
porque condiciona la imaginación.





Zizaleta ipuinarekin*

*Adi! Ez irakurri ipuina jolastu aurretik,
irudimena baldintzatzen baitu.

Mariana basoaren alboan zegoen etxetxo batean bizi zen neskatila zen. Marianaren etxea oso polita zen arren, berak nahiago zuen kanpoan egon, zuhaitzen, zuhaixken, zomorroen eta animaliatxoen artean. Gauza guzti-guzti GUZTIETATIK, belartzan etzatea eta zuhaitzei adi-adi begiratzea zeukan gustukoen. Hitz egiten zioten emakume erraldoiak zirela irudikatzen zuen. Emakume horiek ile berde nahas-nahasia zeukaten. Udazkenean, ordea, haien ilea marroia eta gris samarra zen (bere amaren ilea bezala), eta, neguan, burusoil geratzen ziren (bere amonatxoa bezala). Gero, udan, ilea hazten zitzaien berriro.

[Hemen badago ileaz eta gorputzaz keinu egiterik zuhaitz andrea izango bagina bezala]

Udazkeneko arratsalde batean, Mariana belartzan etzanda zegoen emakume erraldoiei lehenengo hostoak nola erortzen zitzaizkien begira. Hain gustura zegoenez, lotan geratu zen, eta zurrungaka ere hasi zen.

[Zurrunga imitatu]

Halako batean, kili-kilitxoak igarri zituen eskuan. Begi bat ireki eta zizaretxoa ikusi zuen. Gozo-gozotan zebilen bere atzamarren artean. Marianak ez zuen ezertxo ere esan, eta bestela bezala begiratu zion. Zizarea eskutik besora igo zitzaion; besotik, sorbaldara; sorbaldatik, lepora; eta, lepotik, aurpegira.

[Hemen, badago kontakizuna gozagarriagoa egiterik aipatzen diren gorputz-atalak esku bateko atzamarrez zeharkatuz gero, zizaretxoa Marianaren gorputzean gora nola doan irudikatzeko]

Zizarea eskuineko masail handian zegoenean, zera galdetu zion Marianak:

— Aizu, zizaretxo, zertan zabiltza?

— Atseden hartzeko lekuren baten bila nenbilen, eta gozo-gozoa zein biguntxoa zarela zirudien.

— Ni neu lotan egon naiz orain arte. Zerbaitetan jolastu nahi?

Hartara, Mariana eta zizaretxoa hitz egiten eta jolasten hasi ziren. Zizaretxoak Marianari kili-kili asko egiten zizkionez, barre-algarak egiten zituen. Bat-batean, haizeak indartsuago jo zuen, eta Marianak gorantz begiratu zuen. Haizearen eraginez, zuhaitz andreak alde batetik bestera mugitzen zirela ikusi zuen. Zuhaitz garaienetako bat, emakume erraldoi eta zaharrena, hitz egiten hasi zitzaien:

— Zizaretxo, Marianari azaldu diozu zer gertatzen den zure etxean?

— Zer gertatzen da? — galdetu zuen Marianak jakinguraz.



Mariana era una niña que vivía en una pequeña casita al lado del bosque. Aunque la casa de Mariana era muy bonita, ella preferiría estar fuera, entre árboles, arbustos, bichos y animalillos. Lo que más le gustaba de todo, de todo, de TODO, era tumbarse en la hierba y mirar fijamente los árboles. Se imaginaba que eran señoras gigantes que le hablaban. Esas señoras tenían el pelo verde, muy alborotado. En otoño, su pelo se convertía en marrón y un poco gris (como el pelo de su mamá) y, en invierno, se quedaban calvas (como su abuelita). Luego llegaba el verano y, de nuevo, el pelo les volvía a crecer.

[Aquí se puede gesticular con el pelo y el cuerpo como si fuera una señora árbol]

Una tarde de otoño, Mariana estaba tumbada en la hierba mirando cómo las primeras hojas de las señoras gigantes empezaban a caer. Estaba tan a gusto que se quedó dormida, incluso se puso a roncar.

[Imitar un ronquido]

De pronto, notó unas cosquillas en la mano. Abrió un ojo y vio a un pequeño gusano que paseaba tan ricamente por sus dedos. Mariana no dijo nada y se quedó mirando con disimulo. El gusano subió de la mano al brazo, del brazo al hombro, del hombro al cuello y del cuello a la cara.

[Aquí la narración se detiene recorriendo con los dedos de una mano las partes del cuerpo que se van nombrando, para imaginar al gusanito escalar por el cuerpo de Mariana]

Cuando el gusano estaba en su mofllete derecho, Mariana preguntó:

— Oye, gusanito, ¿qué haces aquí?

— Estaba buscando un lugar para descansar y parecías muy suave y blandita.

— Pues es que yo ya he dormido. ¿No prefieres jugar a algo?

Así, Mariana y el gusanito empezaron a conversar y a jugar. El gusanito hacía muchas cosquillas a Mariana y ella se reía a carcajadas. De pronto, el viento empezó a soplar con más fuerza y Mariana miró hacia arriba. Vio cómo las señoras árboles se movían con el viento, de un lado a otro. Uno de los árboles más altos, la señora más gigante y vieja, empezó a hablar:

— Gusanito, ¿has contado ya a Mariana lo que está pasando en tu casa?

— ¿Qué está pasando? —preguntó Mariana curiosa.



— Den-dena suntsitzen ari dira. Hondeamakinak iritsi dira, eta lur guztia irauli dute. Errepidea eraiki nahi dutenez, landareak ebakitzen ari dira. Hori dela eta, lurzorua kutsatzen ari dira, eta urik gabe utzi gaituzte. Nik neuk ihes egin behar izan dut, nire familia guztiak bezala —azaldu zuen zizaretxoak.

— Beste errepide bat? Asko daude eta! Ez da besterik behar! —esan zuen harri eta zur neskatilak.

— Agian, Zizaretxori lagundu ahal diozu, Mariana —esan zion zuhaitz andreak irribarretsu.

— Egia da! Zerbait bururatu zait! Zizaretxo, nire etxean bizi nahi zenuke?

— Zoragarria litzateke! —erantzun zion animaliatxoak.

— Hostoz, belarrez, lurrez eta harritxoz eraikiko dugu kaxatxoa, gauero bertan oso gustura lo egin dezazun —proposatu zion Marianak.

[Hemen, kaxan zer egingo den azaldu baino lehen, neska-mutilei galdetu ahal zaie nola eraiki litekeen zizarearentzako kaxa hori]

Esan eta egin. Marianaren etxean, zizaretxoak gauak igarotzeko kaxatxoa zeukan. Goizero, neskatilak burua hurreratzen zuen kaxara, eta zera esaten zion:

— Egun on, zizaretxoooooo.

— Egun on, zizaretxoooooo.

Erantzunik ez.

— Zizaretxo, non zaude?

— Pues que todo está siendo destruido. Han llegado unas máquinas excavadoras y han removido toda la tierra. Quieren construir una carretera y están cortando las plantas, contaminando el suelo y dejándonos sin agua. Yo he tenido que huir, igual que toda mi familia —explicó el gusanito.

— ¿Otra carretera? Pero si ya hay muchas, otra más no hace falta — dijo sorprendida la niña.

— A lo mejor podrías ayudar a Gusanito, Mariana — habló la señora árbol con una sonrisa.

— ¡Es verdad! ¡Tengo una idea! Gusanito, ¿te quieres venir a vivir a mi casa?

— ¡Sería estupendo! —respondió el animalillo.

— Construiremos una cajita con hojas, hierba, tierra y piedrecitas para que puedas dormir a gusto todas las noches — propuso Mariana.

[Aquí, antes de contar qué va a haber en la caja, se puede preguntar a las niñas y niños cómo se podría construir esta caja al gusanito]

Dicho y hecho. En casa de Mariana, el gusanito tenía una pequeña caja para pasar las noches. Cada mañana, la niña asomaba la cabeza en la caja y decía:

Y este salía, trepaba por los dedos de su amiga y se iban juntas al bosque a tumbarse y jugar. Así pasaban los días y las semanas, tan ricamente, Mariana y el gusanito.

Un día ocurrió algo inesperado. Como cada mañana, Mariana llamó a su amigo:

—Buenos días, gusanitoooooooo.

Zizaretxoa irten egiten zen, bere lagunaren atzamarretan gora egiten zuen eta elkarrekin basora joaten ziren etzatera eta jolastera. Marianak eta zizaretxoak horrelaxe igarotzen zituzten egunak eta asteak, ezin gusturago.

Egun batean, ordea, ezustekoa gertatu zen. Goizero bezala, Marianak bere lagunari deitu zion:

— Egun on, zizaretxooooooo.

Hala ere, ez zuen erantzunik jaso. Marianak zera esan zion berriro:

[Neska-mutilei eskatu zizaretxoari deitzeko: “nola deitzen dio Marianak zizaretxoari? Lagundu, zizaretxoari deituko diogu”]

— Egun on, zizaretxooooooo.

Ezer ere ez, erantzunik ez.

Egun hartan, Mariana sor eta lor geratu zen, baina ez zion garrantzirik eman. Zizaretxoa han-hemenka bazterrak nahasten ibiliko zela pentsatu zuen.

Hurrengo egunean, berbera gertatu zen:

— Beste errepide bat? Asko daude eta! Ez da besterik behar! —esan zuen harri eta zur neskatilak.

— Agian, Zizaretxori lagundu ahal diozu, Mariana —esan zion zuhaitz andreak irribarretsu.

— Egia da! Zerbait bururatu zait! Zizaretxo, nire etxean bizi nahi zenuke?

Berriro ere, isiltasuna nagusi. Kaxaren barruko alderantz begira geratu zen, pentsakor. Halako batean, berria zen zerbait ikusi zuen. Txoko batean, bolatxo horia zegoen, eta bazirudien artile fosforitoz eginda zegoela. Kapulu distiratsua zen oso. Marianak zera galdetu zion berriro:

[Hemen, ipuina nola doan eta taldea nolakoa den kontuan hartuta, bolatxo hori zer den badakiten galdetu ahal zaie]

— Zizaretxooooooo, non zaude?

— Hemen barruan, laguntxo, nire kapuluan aurkituko nauzu —entzun zen bolatxo horiaren barruko aldetik.

Irribarre ezin handiagoak Marianaren aurpegia argitu zuen. Hantxe zegoen bere laguna, ez zuen alde egin.

— Zer egiten duzu hor, baina? —jakin nahi izan zuen Marianak.

— Egonarria, laguntxo, egonarria. Laster irtengo naiz.

Pero no obtuvo respuesta. Mariana repitió:

[Animar a niñas y niños a llamar al gusanito: “¿Cómo llama Mariana a gusanito? Ayudadme, vamos a llamar al gusanito”]

— Buenos días, gusanitoooooooo.

Nada, sin respuesta.

Ese día Mariana se quedó un poco extrañada pero no le dio importancia. Pensó que el gusanito andaría por ahí trasteando.

Al día siguiente, ocurrió lo mismo:

— Buenos días, gusanitooooooooo.

Sin respuesta.

— Gusanitooooooo, ¿dónde estás?

Nada, silencio.

Mariana empezaba a estar un poco preocupada, pero no perdía la esperanza. Al cabo de una semana, volvió a preguntar:

— Gusanitooooooo, ¿dónde estás?

[Animar a niñas y niños a llamar al gusanito]

— Gusanitooooooo, ¿dónde estás?

— Aquí dentro, amigüita, en mi capullo me encontrarás — se escuchó desde el interior de la bolita amarilla.

Una enorme sonrisa iluminó el rostro de Mariana. Ahí estaba su amigo, no se había marchado.

— Pero, ¿qué haces ahí? — quiso averigüar Mariana.

— Paciencia, amigüita, paciencia. Pronto saldré.

Los días siguientes Mariana fue cada mañana a la caja, pero su pregunta había cambiado. Ahora decía:

Hurrengo egunetan, Mariana goizero joan zen kaxara, baina beste galdera bat egin zion. Zera itaundu zion:

— Zizaretxooooo, hortxe zaude oraindik?

— Hementxe jarraitzen dut, laguntxo. Pazientzia. Hementxe nago oraindik.

Halako batean, egun batean, Mariana kaxaren barruko aldera begira zegoenean eta zizaretxoaren arrastorik ere ez zegoela ikusi zuenean, hego handi koloretsuko tximeleta irten zen kapulutik. Puntutxo urdin turkesak eta urre-koloreko islak zituen hegoen ertzetan.

— Zeu zara, Zizaretxoooooo?



— Esan nizun egonarria edukitzeko, zer egin handia nuen-eta!

— Zizaretxooooo. Ene, nola esango dizut orain? Orain, ezin dizut zizaretxoa esan, tximeleta zara-eta! Hala ere, zizaretxo-aurpegia duzu oraindik —esan zion Marianak urduri eta hunkituta.

— Nahi duzun izena jarri, laguntxo.

— Ez dakit, ez dakit, bada! Zizaretxoa ala tximeleta? Badakit. Zizaleta esango dizut! Horixe! Zizaleta!

Marianak eta Zizaletak elkar besarkatu zuten, neskatila batek eta hegodun zomorro batek elkar besarkatu dezaketen bezala. Basora irten ziren belarraz eta zuhaitzez gozatzera. Barkatu, erraldoi andreez gozatzera, hosto berdez gainezka une hartan ezin ederrago zeuden-eta.

Marianak Zizaletari begiratu zion, eta triste zegoela konturatu zen.

— Zer gertatzen zaizu?

— Etxe-mina dut erabat. Zurekin egotea oso gustuko badut ere, neure zelaira itzuli nahi nuke, eta hego berriak erakutsi nahi nizkioke neure familiari.

Zuhaitz andreek adarrak astindu zituzten, eta zera esan zuten:

[Haien gorputzaz antzeztu daiteke zuhaitz andreen mugimendua]

— Beste neska-mutil batzuen etxera joan ziren zizaretxo guztiak ere tximeleta bihurtu dira, eta euren etxera itzultzea erabaki dute. Alanbre-hesiaren barruan sartzen saiatuko dira, zelaia hondeamakinetatik salbatzeko asmoz. Baliteke zuok haiekin bat egin nahi izatea.

Zizaletak eta Marianak ez zuten birritan pentsatu. Batak hegan egin zuen, eta bestea ziztu bizian joan zen korrika alanbre-hesiz inguratuta zegoen zelairaino. Hara iristean, neska-mutilak hesiaren aurrean geratu behar izan ziren, baina tximeletek alanbreen artean hegan egin ahal izan zuten.

— Gusanitooooooo, ¿sigues ahí?

— Aquí sigo, amiguita, paciencia, aquí sigo.

De pronto, un buen día, cuando Mariana miraba al interior de la caja y no veía ni rastro del gusanito, del capullo salió una mariposa de alas grandes y coloridas. Tenía puntitos azul turquesa con reflejos dorados en los extremos de las alas.

— ¿Eres tú, gusanitooooo?

— Ya te dije que tuvieras paciencia, ¡tenía mucho trabajo que hacer!



— Gusanitooooo. Ay, ¿cómo te llamo ahora? Ya no te puedo llamar gusanito, ¡eres una mariposa! Pero tu cara sigue siendo de gusanito — dijo Mariana nerviosa y emocionada.

— Llámame como quieras, amiguita.

— No sé, no sé. ¿Gusanito o mariposa? Ya sé, ¡te llamaré Gusaposa! Eso, ¡Gusaposa!

Mariana y Gusaposa se abrazaron como se pueden abrazar una niña y un bicho con alas. Salieron al bosque para disfrutar de la hierba y de los árboles. Perdón, de las señoras gigantes, que en ese momento resplandecían rebosantes de hojas verdes.

Mariana miró a Gusaposa y se dio cuenta de que tenía cara triste.

—¿Qué te pasa?

—Echo de menos mi hogar. Aunque me encanta estar contigo, me gustaría volver a mi prado y enseñar mis nuevas alas a mi familia.

Las señoras árboles agitaron sus ramas y dijeron:

[Se puede interpretar con su cuerpo el movimiento de las señoras árboles]

— Todos los gusanitos que se fueron a casa de otras niñas y niños también se han convertido en mariposas y han decidido regresar a su hogar. Van a intentar entrar dentro de la alambrada para salvar el prado de las excavadoras. Tal vez os gustaría uniros a ellas.

Gusaposa y Mariana no se lo pensaron dos veces. Una voló y otra corrió como pudo hasta el prado que estaba rodeado por una alambrada. Al llegar ahí, las niñas y los niños tuvieron que quedarse delante de la valla, pero las mariposas pudieron volar entre el alambre.

— ¡Vuela, Gusaposa, vuela, que te están esperando todas! — animó Mariana.

— Hegan egin, Zizaleta, hegan egin, guztiak zain dituzu-eta!! —esan zion Marianak adoretsu.

Zizaleta bere lagun tximeletekin elkartu zen. Hainbat eta hainbat zirenez, antolatu eta horma handia eraiki zuten euren hegoez, hondeamakinek ezer egiteko eta lanak garatzeko inolako aukerarik izan ez zezaten. Neska-mutilek amei, aitei, izebei, osabei, amonei, aitonei eta ezagun guzti-guztieeeiii deitu zieten. Horiek horrela, nagusiek, txikiek, intsektu gehiagok eta beste animalia batzuek alanbre-hesia gurutzatzea lortu eta are handiagoa egin zuten tximeleten horma. Batzuek oihal-zatiak jarri zituzten; eta beste batzuek, egur-zatiak, lore-hautsaren bolak edo kolore guztietako antenak. Zuhaitz andreek ere haizea erabili zuten, euren buruko hostoak bidaltzeko eta tximeleten horma handiagotzeko.

Horma HAIN HANDIA zenez, makinek ez zuten ezer ikusten, eta gelditu egin behar izan ziren.

Hurrengo egunean, neska-mutilak, adinekoak, intsektuak eta beste animalia batzuk zelaira itzuli ziren, eta berbera egin zuten. Egun horretan ere, makinek EZIN izan zuten lan egin. Horrela, egunez egun, harik eta azkenean, goiz batean, heldu zirenean, hondeamakinak ez zaudela ikusi zuten arte. Gora! Betiko alde egin zuten! Handik aurrera, zaborra desagertu zen, landareak berriro hazi ziren eta ura berriro jariatu zen. Zelai hartako izaki bizidun guztiek leku paregabe hori zaindu zuten aurrerantzean.

[Hemen, landareak, animaliak eta natura nola zaintzen diren galdetu ahal zaie]

Alaitasun hori ospatzeko, Mariana eta Zizaleta zuhaitz andreen basora joan ziren paseoan, elkar ezagutu zuteneko leku zoragarri hartara, alegia. Ilunabarrean, ordea, bazekiten agur esan behar ziotela elkarri.

— Agur, Zizaleta —esan zion Marianak— Bisitan etorriko zara?

— Egun guztietan, guzti-guztietan —erantzun zion animaliak.

Bere laguntxoarengana hurbildu, hegoez masail handietan musua eman eta hegan aldendu zen.

Y acercándose a su amiguita, le dio un beso con las alas en los mofletes y salió volando.

—Todos los días, todítos —respondió el animal.

—Adiós, Gusaposa —dijo Mariana— ¿Me visitarás?

Para celebrar esta alegría, Mariana y Gusaposa se fueron a pasear por el bosque de las señoras árboles, ese lugar tan maravilloso donde se conocieron. Al anochecer, sabían que tenían que despedirse.

[Aquí se puede preguntar cómo se cuidan a las plantas, animales y naturaleza]

Al día siguiente, niñas, niños, personas mayores, insectos y otros animales volvieron al prado e hicieron lo mismo. Y ese día las máquinas TAMPOCO pudieron trabajar. Y así, un día tras otro hasta que, por fin, una mañana, cuando llegaron, vieron que ya no estaban las excavadoras. ¡Viva! ¡Se habían ido para siempre! A partir de entonces la basura desapareció, las plantas volvieron a crecer y el agua volvió a brotar. Todos los seres vivos de ese prado se encargaron de cuidar ese hermoso lugar.

Era TAN GRANDE el muro que las máquinas no veían nada y tuvieron que parar.

Gusaposa se juntó con sus amigas las mariposas. Eran tantas que se organizaron para construir un gran muro con sus alas de tal manera que las excavadoras no pudieran ver nada y no pudieran avanzar sus trabajos. Las niñas y niños llamaron a sus madres, padres, tías, tíos, abuelas, abuelos y toooooda persona conocida y, entre mayores, peques, y más insectos y otros animales consiguieron cruzar la alambrada y hacer más grande el muro de las mariposas. Hay quien ponía trozos de tela, otras trozos de madera, bolas de polen o antenas de todos los colores. Incluso las señoras árboles se ayudaron del viento para enviar las hojas de su cabeza y hacer más grande el muro de mariposas.

